

1

2

3

4

5


6

7

8

9

10



## MEZU SEKRETUA



QR HONEN BITARTEZ  
MEZU SEKRETUA ASMATU  
DUZUEN JAKINGO DUZUE



KIROLDEGIA



CASARES  
KULTUR ETXEA





# ALTZAKO MEZU SEKRETUAREN BILA

Altzatar maiteok, Juan Martinez de Arriaga naiz eta gutun hau idazten dut egunen batean zuen eskuetara iritsiko delakoan. Duela urte asko Altzako bizilaguna nintzen, orain zuek bizi, jolastu, ikasi eta dibertitzen zaretzen auzokoa. Garai hartan Altza herri txiki baina oparoa zen, baserri handiak, baratze emankorrak eta larre aberatsak zituen.

Bertan bizi ginen pertsona guztiek elkarri laguntzen genion eta gure artean zaintzen ginen. Egia da Altzako familia garrantzitsuenen artean liskarrak zeudela, lurren inguruko eztabaidak edo antzinako herentziengatik hika-mikak. Batzuek inbidiak zirela zioten, baserri oparoena nork zuen edo sagardo goxoena nork ekoizten zuen ikusteko ezkutuko lehiaketa moduko bat.

Mezu hau gure auzoko etorkizuneko belaunaldiari uztea erabaki dut, Altza hobeto ezagutu eta guk egin genuen bezala maitatu dezazuen. Mezu sekreturaino eta, agian, altxor desiraturaino iristeko gairatuta beharko dituzuen galderak eta probak dira hauek.

Lehen pista nire Arriaga lursailean duzue zain, edo jende askok deitzen zion bezala Arriya lursailean. Hara iritsitakoan, su artifizialen antz handia duten zuhaitzen adaburuak bilatu beharko dituzue.

Juan M. de Arriaga

BEHIN LEKU EGOKIAN  
ZAUDELA  
HITZ SEKRETUA  
AURKITZEKO PISTA  
EMANGO DIZU

TOKIA AURKITZEKO  
INFORMAZIOA  
EMANGO DIZU

1

Zer izen dute  
zuhaitz hauek?

2


Harria parkea inguratzen duten  
zuhaitz handi hauek ezkiak dira.  
Gerturatu zaitezte hauek ikustera.

3

Zuhaitz dotore hauek oso ohikoak  
dira Donostiako plaza eta lorategietan.  
Fijatu al zarete bere hostoen forman?  
Zeren antza dute?




Marrazkian ageri den egitura hau,  
kareharria eta egurra errez, kare  
bizia egiteko erabiltzen genuen labea  
da. Ikusi al duzu horrelakorik parkean?



3

Lortzen genuen karea bizilagunen artean banatzen  
genuen lurrarentzako ongarri gisa, ikuiluak  
desinfektatzeko edo etxeetako hormak zuritzeko.  
Egitura honek zer izen duen badakizue? Labirintoa  
jarraituz asmatuko duzue.



Izar formako hostoak dituen zuhaitz bateraino  
joan beharko duzue hurrengo hitza aurkitzeko.  
Iritsi zarete? Likidanbar baten ondoan zaudete.



4

Hemendik iparraldera  
begira jarri eta aurrean  
dituzuen bi mendi  
izenak asmatu beharko  
dituzue letra hauek  
ordenatuz.



5



Nire familiaren sortetxearen  
zati bat parkean gorde da, bertan  
gure abizenaren armarria ikus  
dezakezue. Bilatu.



Marrazki hau eta aurrean  
duzun armarria konparatu.  
Zer aldatu diogu?



Gure etxe inguruan gure ama  
zenaren zuhaitz kuttuna  
landatu genuen, *ginkgoa*.  
Begira zer hosto politak dituen.  
Bilatu, hemen gertu dago.

6


Zeren forma dute bere  
hostoek? Ondoko irudia  
osatu eta jakingo duzue.



Oraingoa, etxeko txikiei gehien  
gustatzen zaien txokoraino  
joan beharko duzue, hurrengo  
pistaren bila.

7

Nola ikusiko du hemengo  
lurra hegan pasatzen den  
txori batek?





Parke honetan, adin guztietako  
pertonentzako jolasak daude.  
Ba al dakizue helduek zein  
txoko duten gustuko  
jolasteko?



Hurrengo zutabean ageri  
diren baratzeako barazkien  
izenak asmatu eta jolas honen  
izena jakingo duzue.


8



Euritik edo eguzkitik babesteko  
estalkia ere badago parkean.  
Ikusi al duzue?

9

Naturan agertzen den figura  
geometriko bat aurkituko  
dugu bertan. erleek oso gustoko  
dutena! Kolore bakoitzeko  
puntuak lotu beharko dituzue  
Zein irudi da?  
Zenbat alde ditu?



Azken pista gure bizilagunen  
etxean aurkituko duzue,  
Casarestarren jauregian.  
Segi bertaraino.



Zein da beren armarrian  
azaltzen den  
animaliaren izena?

10

